

1.1 PROZESU KIRURGIKOAREN PLUGINA (CHECKLIST)

1.1.1 Kirurgia Txikiaren CheckList: "Ez dagokio" aukera gehitu da kirurgialariaren sinaduraren zatian (OSAKICROSS-1857)

2-Irteera urratsean, kirurgialariaren sinaduraren azpian, lauki bat gehitu da (check), "ez dagokio" markatu ahal izateko.




Berdin jokatu behar da kasu horretan eta anestesistaren sinaduraren ondoan agertzen den "ez dagokio" aukerarekin; hau da, portaera bera dute pantailan.

"Ez dagokio" aukera markatuz gero, berrespen-mezu bat agertuko da:



- Erabiltzaileak berresten badu: check hori markatuko da, eta kirurgialariaren sinaduraren eremua hustuko da, baldin eta aurretik bete bada.
- Bestela, checka markatu gabe mantentzen da.

"Ez dagokio" eremua markatu gabe badago eta kirurgialariaren sinadura sakatzen bada, beste berrespen-mezu bat agertuko da:



- Erabiltzaileak berresten badu: checka desmarkatu egingo da, eta kirurgialariaren sinadura sartzeko leihoa irekiko da.

 Osakidetza	Dokumentuaren izena: Osabide Globala. Bertsioak ezagutzera ematea		
	Bertsioa: V3.1.3	Data: 2025/08/12	

- Bestela, checka markatuta mantenduko da, eta ez da agertuko sinatzeko leihoa.

1.1.2 Haurren Kirurgia Handiaren CheckList Berria (OSAKICROSS-1857)

Segurtasun kirurgikoko egiaztapen-zerrenda (SKEZ) egokitzea Haurren Kirurgia Handirako (14 urtetik beherako pertsona guztientzat, hau da, 0 urtetik 13 urte eta 11 hilabetera bitartekoentzat)

Beste checklist bat gehitu da, "Haurren Kirurgia Handia", pazientea pediatrikoa bada agertuko dena.

Checklista irekitzean, pazientea pediatrikoa den egiaztatzen da. Egiaztapen hori interbentzioaren beste checklist bat erregistratzeko sartzen denean egingo da.

- pazientea pediatrikoa bada, menu zabalgarrian checklist motak agertuko dira: **Haurren Kirurgia Handia**, Kirurgia Txikia eta Katarata.
- pediatrikoa ez bada: menu zabalgarrian agertuko diren mota berberak agertuko dira.

Checklist-eko urratsak gordetzean/berrestean agertutako portaera gainerako checklist motetan bezalakoa da: egoera-aldaketa, urratsen data, traza, urrats bat berretsi ondoren hurrengo urratsa aktibatuko da... baita egiteke dauden aldaketen kontrola ere.

Pantailak:



Pazientea: Amelia, XX PEI H Ebakuntza-gela: QUIR1

Checklist-mota Haurren Kirurgia Handia

1
SARRERA

2
ANESTESIAAREN
AURRETIK

3
EBAKUNTZA-EGIN
AURRETIK

4
IRTEERA

✓

Ebakuntza-gelara sartu aurretik

TALDE KIRURGIKOA SENIDE EDO TUTOREEKIN ETA PAZIENTEAREKIN

- ☐ PAZIENTEAREN DATUAK IDENTIFIKAZIO-ESKUMUTURREKOAN EGIAZTATZEA
- ☐ EGIAZTATU PROZEDURA, TOKIA, EBAKUNTZA-EREMUAREN LATERALITATEA ETA BARAURIK DAGOEN
- ☐ BAIMEN INFORMATUAK

LEKU KIRURGIKOA MUGATU DA

☐ BAI ☐ EZ DA BEHARREZKOA

ALERGIA EZAGUNIK AL DU?

☐ BAI ☐ EZ

HORTZEN BAT MUGITZEN ZAIO?

☐ BAI ☐ EZ

HARTU AL DU GAUR BERE OHIKO MEDIKAZIOA?

☐ BAI ☐ EZ ☐ EZ DA BEHARREZKOA

AZKEN 15 EGUNETAN ARNAS SINTOMARIK IZAN DU? (eztula, mukositatea, sukarra...)

☐ BAI ☐ EZ

KENDU AL ZAIZKIO METALEZKO OBJEKTU EDO GAILU MEDIKO ATERAGARRI GUZTIAK?

☐ BAI ☐ EZ

Pazientea: Amelia, XX PEI H Ebakuntza-gela: QUIR1

Checklist-mota Haurren Kirurgia Handia

1
SARRERA

2
ANESTESIAAREN
AURRETIK

3
EBAKUNTZA-EGIN
AURRETIK

4
IRTEERA

✓

Anestesia-indukzioaren aurretik

ERIZAINAK ETA/EDO ANESTESISTAK BAIEZTATU DU (historia klinikoarekin eta eskumuturrekoarekin, pazienteak ez badu laguntzen)

- ☐ PAZIENTEAREN NORTASUNA
- ☐ TOKI KIRURGIKOA
- ☐ PROZEDURA
- ☐ BAIMENA
- ☐ BARAURIK

ANESTESISTAK HONAKO HAUEK EGIAZTATU DITU:

- ☐ MONITORIZAZIO OSOA ETA FUNTZIONATZEN
- ☐ EKIPAMENDUA EGIAZTATU DA
- ☐ ANESTESIAREN MEDIKAZIOA EGIAZTATUTA

ALERGIA EZAGUNIK AL DU?

☐ BAI ☐ EZ

☐ HISTORIA KLINIKOAREKIN ETA ESKUMUTURREKOAREKIN EGIAZTATUTA

ZAILTASUNAK ARNASBIDEAN / ARNASTEKO ARRISKUA?

☐ EZ ☐ BAI, ETA TRESNAK ETA EKIPOAK ERABILGARRI DAUDE

ODOLJARIO-ARRISKUA > 7ml/kg?

☐ EZ ☐ BAI, ETA ZAIN BARNEKO SARBIDEA ETA LIKIDO EGOKIAK ESKURAGARRI DAUDE

HEMODERIBATUAK ESKURAGARRI DITU?

☐ BAI ☐ EZ



Pazientea: Amelia, XX PEI H Ebakuntza-gela: QUIR1

Checklist-mota Haurren Kirurgia Handia

1 SARRERA 2 ANESTESIAAREN AURRETIK 3 EBAKUNTZA-EGIN AURRETIK 4 IRTEERA

Azala ebaki baino lehen

ERIZAINA, ANESTESISTA ETA KIRURGIALARIA

☐ TALDEKIDE GUZTIAK BERTAN ETA PREST DAUDE

EKIPOAREN BERRESPENA

☒ PAZIENTEAREN NORTASUNA

☐ TOKI KIRURGIKOA

☐ PROZEDURA

EMAN AL DA PROFILAXI ANTIBIOTIKOA AZKEN 60 MINUTUETAN?

☐ BAI ☐ EZ DA BEHARREZKOA

KIRURGIALARIAK EGIAZTATZEKOAK:

☐ ESKU-HARTZEAREN IRAUPENA

☐ PAZIENTEAREN POSIZIOA

☐ AURREIKUSITAKO ODOL-GALERA

☐ ANESTESISTAK AZTERTU DU PAZIENTEAK ARAZO ESPEZIFIKORIK BADUEN

ERIZAINAZA-TALDEAK EGIAZTATZEKOAK:

☐ ESTERILITATE-ADIERAZLEAK

☐ TRESNA ETA EKIPOEN EGOKITASUNA

OINARRIZKO IRUDI DIAGNOSTIKOAK BISTARA DAITEZKE?

☐ BAI ☐ EZ DA BEHARREZKOA

Pazientea: Amelia, XX PEI H Ebakuntza-gela: QUIR1

Checklist-mota Haurren Kirurgia Handia

1 SARRERA 2 ANESTESIAAREN AURRETIK 3 EBAKUNTZA-EGIN AURRETIK 4 IRTEERA

Ebakuntza-gelatik irten aurretik

ERIZAINA, ANESTESISTA ETA KIRURGIALARIA

ERIZAINZAKO TALDEAK AHOZ BAIEZTATU DU TALDEAREKIN:

☐ EGINDAKO EBAKUNTZAREN IZENA

TRESNEN, GASEN ETA ORRATZEN KONTAKETA

☐ ZUZENA ☐ EZ DA ZUZENA ☐ EZ DA BEHARREZKOA

LAGINEN ETIKETAK:

☐ BAI ☐ EZ DA BEHARREZKOA

TRESNERIA ETA EKIPOAK

☐ INSTRUMENTALAREKIN ETA EKIPOAREKIN KONPONDU BEHARREKO ARAZORIK DAGOEN

KIRURGIALARIA ANESTESISTA ETA ERIZAINA:

☐ EBAKUNTZA OSTEKO TRATAMENDUAK ETA ZAIKETA PLANIFIKATU ETA ERREGISTRATU DIRA

☐ EGIAZTATU PAZIENTEA IDENTIFIKATZEKO ESKUMUTURREKOAK BERE TOKIAN JARRAITZEN DUELA ETA BEHAR BEZALA DAGOELA

KIRURGIALARIAK ORAINDIK SINATU GABE ANESTESISTA ORAINDIK SINATU GABE ERIZAINZAK ORAINDIK SINATU GABE

KIRURGIALARIA SINADURA ANESTESISTA SINADURA ERIZAINA SINADURA